BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUTILOAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

1. BALDINTZA-AGIRI HONEN IRISMENA

Baldintza-agiri honetan prozesu osoan zehar kontuan hartu behar diren faseak ezartzen dira, Mutiloako udalerriko hiri-antolamenduko plan orokorra idazteko lanak idazte aldera.

Lanen faseak ezartzean, fase bakoitzaren berezko dokumentuen eduki materiala hartzen da kontuan. Gainera, fase horiek egiteko eta udalerriko hiri-antolamenduan interesa duten herritarrei eta erakundeei zuzendutako eztabaida publiko eta parte-hartzailea errespetatzeko aldizkako epeak ere adierazten dira. Horiei lotutako faseak eta dokumentu-edukiak zehazteko, kontuan hartzen dira hiri-legerian, ingurumen-legerian eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoak diren eta indarrean dauden gainerako arau-xedapenetan ezarritako betekizunak. Horrela,guztiz beteko da etorkizuneko plan orokorrean horietan ezarritakoa.

Era berean, udalari aholkuak emateko prozesua ere ezartzen da baldintza-agiri honetan.Erredakzio-taldea arduratuko da horretaz aipatutako lanak eratzeko prozesu osoan zehar.

2. ESLEIPENEAN GAUZATU BEHARREKO LANAK

Esleipenaren xede diren lanek barne hartzen dituzte Udalbatzari HAPOren dokumentu berria idazterakoan aholkularitza tekniko-juridiko egokia emateko beharrezkoak diren lan guztiak, harik eta behin betiko onartu arte. Orientazio gisa, honako lan eta dokumentu hauek adierazten dira:

Herritarrek parte hartzeko programa.

Herritarrek parte hartzeko foroak antolatzea eta zabaltzea.

Hirigintzaren azterketa eta diagnostikoari buruzko dokumentua

Plangintzaren aurrerapen-dokumentua, irizpide eta helburu orokorrak adierazita.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak.

Aurkeztutako iradokizunak baloratzeko dokumentua.

Dagokion erakusketa antolatzea.

Hasierako onarpenerako dokumentua.

Aurkeztutako alegazioak baloratzeko dokumentua.

Behin-behineko onarpenerako dokumentua.

Behin betiko onarpenerako dokumentua.

Beharrezkoa bada,behin betiko onetsitako dokumentuaren azken formalizazioa (testubategina).

Agiri horiek guztiek Udalbatzan aurkeztu ziren unean indarrean zegoen legeriak eskatutako zehaztapen eta formalitateak bete beharko dituzte.Talde juridikoak aholkularitza emango du eta Udalak gainerako administrazio publikoei egin beharreko jakinarazpenen eta epeen jarraipen formala egingo du.

Planteatutako gaiak aztertzeko edo azaltzeko beharrezkoak diren txosten eta dokumentu guztiak sartuko dira,bai korporazioak eskatuta, bai erredakzio-taldeak berak proposatuta, baita eskatzen diren bilera, solasaldi eta azalpen guztietara joatea ere,lekualdaketen, dieten eta dokumentua egitearekin lotutako beste edozein gasturen kostuak barne.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentazioa egitean,ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuetan jaso beharreko informazioaren zabaltasunari eta zehaztapen-mailari buruz ingurumenaren arloan eskumena duen foru-organoak egiten dituen txostenetatik eratorritako zehaztapenak hartuko dira kontuan, bai eta aipatutako azterlana egiteko interesgarritzat jotzen den beste edozein zehaztapen ere (211/2012 Dekretuaren arabera edo Legea jendaurrean jarri behar diren dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira.

Administrazio-izapideak egiteko beharrezkoak diren kopiak entregatuko dira, paperean, A4formatuan, eta formatu digitalean, fitxategi manipulagarriekin (luzapenak:*.dwg,*.doc,*.xls,etab.), baieta*.pdf luzapena duen ale informatizatu bat ere, zabaltzeko.

3. LANAK IZANGO DUEN GUTXIENEKO DOKUMENTAZIOA

Plangintza orokorreko tresna berria hurrengo paragrafoetan zerrendatzen diren dokumentuek osatuko dute. Dokumentu hauek 2/2006 ekainaren 26ko legeak, lurzoru eta hirigintza arautzen duen legeak izango dira.

HIRIGINTZA INFORMAZIOA

HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenaren 72.artikuluan ezarritakoa betetzeko, Hasierako Dokumentu Estrategikoa egin beharko da.Bertan, udalerriaren antolamenduan aztertutako alternatibei buruzko aurretiazko informazioa jasoko da, bai eta artikulu horretan adierazitako ingurune fisikoari buruzko informazio guztia ere. Hasierako dokumentuan sartu beharreko antolamendu-alternatibak udalerriaren, haren etxebizitza-beharren, ekipamendu-beharren, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eta abarren lehen azterketa baten emaitza izan behar dira,eta parte-hartze publikoko prozesu zabal baten emaitza ere integratu behar du.

Gainera, sektore- eta lurralde-administrazioek eta administrazio-batzarrek Lurzoruari buruzko Legearen 90.1 eta 90.2 artikuluetan definitutako kontsultari erantzunez jakinarazitako gaiak integratuko dira.

Parte-hartze publikoaren fasean azaldutako proposamen zehatzen eta antolamendu-irizpideen emaitza antolamendu-proposamen eta-alternatiba gisa sistematizatuko da.

PLANGINTZARENAURRERAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 87.artikulua betetzeko eta plangintzaren erabakiak hartzeko faseetan parte hartzea ahalbidetzeko, aipatutako dokumentua egingo da, Hasierako Dokumentu Estrategikoaren edukia eta proposamenak kontuan hartuta, bai eta puntu honetara arte garatutako parte-hartze publikoko prozesuaren emaitza ere, eta gutxienez honako dokumentu hauek jasoko ditu:

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA

IAE HAPOren Aurrerapenaren dokumentuan sartzen da eta HAPOren parte da. Egiteko, Ingurumen Organoak (Gipuzkoako Foru Aldundiak) ematen duen Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen-dokumentuaren ingurumen-zehaztapenak edo-baldintzatzaileak sartuko dira.

EAEk, gainera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeagaratzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1.b) artikuluan zehaztutako informazioa jasoko du, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean adierazitakoa.

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta 105/2008 Dekretuan ezarritako gutxienekoa izango da, eta, gainera, ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion gauzatzea eta dokumentazioa jasoko ditu, Eusko Jaurlaritzaren urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak aurreikusten eta eskatzen dutenaren arabera.

Gainera, hiri-lurzoruko eta lurzoru urbaniza ezineko eraikuntza- eta urbanizazio-ordenantzak idatziko dira, HAPOra modu indenpedientean izapidetuko den dokumentuan.

Genero-ikuspegia

Atal berezi hau sartuko da genero-ikuspegia eta genero-bazterkeriaren ondoriozko arazoak txertatzeko, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politikak garatzeko, hautematen diren eraginak eta proposatzen diren neurri zuzentzaileak kontuan hartuta, guztiak ere hirigintza-araudian jaso daitezkeenak. Horretarako,kontratua diseinatzean eta gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu beharko da diagnostikoan, helburuan, jardueretan eta ebaluazioan. Halaber, azken justifikazioan, generoaren alderdian izan duen eraginari buruzko txostena egin beharko da. Txostenean, datuak eta adierazleak erabiliko dira, erabiltzaileen edo onuradunen sexuaren arabera banakatuta, aplikatutako berdintasun-neurrien eragina ebaluatu ahal izateko

Hizkuntza-ikuspegia

Ebaluazio horren helburua da euskararen erabileraren aurkako eragin negatiborik ez sortzea euskarak osasun ona duen eremu eta egoeretan, eta, sortzen badira, eragin horrekin batera neurri zuzentzaile egokiak hartzea.

Hala, hizkuntza-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egin beharko da, plangintza-tresnetan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko.

Jasangarritasun energetikoari buruzko azterlana

Plan Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoa bete beharko du.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa planean sartzeko dokumentua

Ingurumen-azterketa estrategikoa Ingurumen Adierazpen Estrategikoan ezarritakora egokitu beharko da, eta Aurrerapenean jasotako hirigintza-antolamenduaren eta hasieran onesteko idatzitako Plan Orokorraren dokumentuan hartutako hirigintza-antolamenduaren arteko aldaketak jaso beharko ditu.

Planaren publizitatea

Enpresa esleipendunak beharrezko dokumentuak egingo ditu, behin betiko onartu ondoren planaren publizitateari buruzko EAEren dekretuko dagokion artikuluan xedatutakoa betetzeko.

4. IDAZLE TALDEAREN OSAERA ETA BETEBEHARRAK

Kontratazio honetan parte hartu ahal izateko gutxieneko giza baliabideak honako hauek dira:

Arkitektoa

Arkitekto titulua duela egiaztatu beharko du.

Plangintza orokorraren edo Garapen planeamenduaren (egitasmo partziala edo plan berezia) idazketarekin lotutako arkitekto gisa gutxienez lan bat egin izana egiaztatu beharko du, proposamenak aurkezteko egunean hasierako onarpena jaso badu. Era berean onartuko dira berrikuspen partzialak edo aldaketa puntualak)

Lan hori egin izana egiaztatzeko, administrazio jarduleak hirigintza-tresna onartu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du .Ziurtagiri horretan, izendatutako profesionalaren parte-hartzea jaso beharko da arkitekto gisa.

Aholkularitza juridikoa

Zuzenbidean lizentziadun titulua edo gradua duela egiaztatu beharko du.

Plangintza orokorraren edo Garapen planeamenduaren (egitasmo partziala edo plan berezia) idazketarekin lotutako arkitekto gisa gutxienez lan bat egin izana egiaztatu beharko du, proposamenak aurkezteko egunean hasierako onarpena jaso badu. Era berean onartuko dira berrikuspen partzialak edo aldaketa puntualak)

Lan hori egin izana egiaztatzeko, administrazio jarduleak hirigintza-tresna onartu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan, izendatutako profesionalaren parte-hartzea jaso beharko da arkitekto gisa.

Ingurumen-arloko teknikaria

Ebaluazio estrategikoaren eta plan orokorraren azterketa antolatzeko ingurumen-alderdien aholkularitza metodologikoa egiteko, taldeak goi-mailako unibertsitate-titulua duen kide bat izan beharko du. Era berean, zeregin hori enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du, baina kasu horretan, baldintza berberak betetzen dituen pertsona bat atxiki beharko zaio kontratuari.

Hirigintza-plangintzarekin lotutako ingurumen-ebaluazioari dagokionez, esperientzia egiaztatuko da, bai eta HAPO baten "ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa"egin izana ere.Ez da berrikuspen partzialik edo aldaketa puntualik onartuko.

Lan-esperientzia erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da ,izendatutako profesionalak sinatuta, eta lehen aipatutako lanak egin izana hirigintza-tresna hasieraz,behin-behineanedo behin betiko onartu duen administrazioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.Ziurtagiri horrek izendatutako pertsonaren parte-hartzea jaso beharko du.

Herritarren partaidetzarako aholkularitza, Genero-ikuspegiaren arloko aholkularitza, Gizarte-zientzien arloko aholkularitza eta Euskara aholkularitza aurrera emateko teknikoak izan beharko ditu taldeak edo lan hauek aurrera emango dituzten teknikoekin kolaborazio-hitzarmenak aurkeztu beharko ditu.

Taldeko kide bera izan daiteke lehen aipatutako lau aholkularitzetako guztien edo hainbaten arduraduna.

Idazle-taldearen hizkuntza-irizpideak

Erredakzio-taldeak euskararen ezagutza behar bezala bermatu beharko du. Beraz,gutxienez,arkitektoak edo aholkulari juridikoak euskararen ezagutza egiaztatu beharko du, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailako (edo baliokideko)euskara-titulua aurkeztuta,aipatutako erantzukizunetan jarduteko.

Era berean,herritarren parte-hartzeaz arduratzen diren pertsonekC1(edo baliokidea) euskara-maila izan beharko dute.

5. IDAZLE TALDEAREN ETA UDAL TALDEAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du Udalak eskatzen dion bakoitzean Mutiloako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko eta eratzeko eragiketa orokorraren fase eta lan guztietan koordinatzaile eta zuzendari izendatutako langileekin harremanetan egoteko, udalaren ikuspegitik lana hobea eta osoagoa izan dadin egin daitezkeen iradokizunak jasotzeko.

Mutiloako Udalak lanaren garapena ikuskatuko du.Horretarako,kontratistak egoerari buruzko azalpenak emango ditu Udalak horretarako deituko dituen bilkuretan.Bilkura horiek udaletxean egingo dira.

Erakunde esleipenduna prest egongo da eskatutako informazio-batzorde guztietara joateko,fase bakoitza idazteko prozesuaren berri ordezkari politikoei emateko.

Erakunde esleipendunak bilera bat egingo du Udaleko arduradunekin, lizitazio hau esleitu ondoren prozesua abian jartzeko, honako gai hauek jorratzeko: prozedura,lan-metodologia, jarraipen-bileren maiztasuna, emaitza nagusiak faseka aurkezteko bilera.

Erakunde esleipendunari dagokio udalaren barruan idazketa-prozesua kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko behar diren tresnak diseinatzea,bai eta ezarritako helburuen betetze-maila egiaztatzea ere.

6. HERRITARRENPARTEHARTZEA

Ezin bestekoa izango da herritarrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorra(HAPO) idazteko prozesuan parte hartzea.Horretarako,enpresa esleipendunak laguntza tekniko lanak egingo ditu.

Enpresa esleipendunak diseinatuko eta gauzatuko ditu ahalik eta kalitate handienek parte-hartzea baimentzeko behar diren estrategiak, eta prozesuaren osotasunean azaldutakoa da.Halaber,enpresa esleipenduna arduratuko da herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondorioz sortutako informazio, dokumentu edo proposamenak biltzeaz eta Plan Orokorraren dokumentazioan sartzeaz. Halaber,prozesua gizarteratzeko komunikazio-estrategia diseinatzeaz eta garatzeaz ere arduratuko da.

Horretarako, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2016 Legeak aurreikusitako legezko betekizunetik harago doan parte-hartzea proposatu eta erraztuko du, beti ere oreka onargarri baten barruan.

7. DOKUMENTUEN AURKEZPENA

HAPOren espedientea osatzen duten dokumentuak prestatzeko baldintza hauek bete beharko dira:
Prozesuaren faseetan Udalbatzak onartu beharreko dokumentuetako planoak eta errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz entregatu beharko dira.

GFAren e/1:5000eta1/500kartografia ofizialaren bertsio eguneratuena erabili beharko da ETRS89n,GFAk egindako hiri-sareen lanak,plana egin bitartean eguneratzeko,bai eta plangintza normalizatzeko ereduzko dokumentazioaren erreferentzia-eredua ere,eraikuntzako eta urbanizazioko araudia,planoak eta ordenantzak barne.

Dokumentazio guztia paperean eta euskarri informatikoan aurkeztuko da.
Planoak*
.dwg luzapenarekin bateragarriak diren fitxategietan aurkeztuko dira,eta testuak*
.doc luzapenarekin bateragarriak diren formatuan,eta dokumentu osoaren bertsioa*
.pdf luzapenarekin bateragarria den formatuan aurkeztu beharko da.Eman beharreko gutxi gora beherako kopia-kopurua honako hau izango da:

HAPOrako:

Hirigintza-informazioko dokumentua:2kopia eta 5CD.

Aurrerapen Dokumentua: 2 kopia eta 5CD.

Iradokizunak baloratzeko dokumentua:3 kopia.

Hasierako onarpenaren dokumentua:2 kopia eta 5CD.

Alegazioak baloratzeko dokumentua:3kopia.

Behin-behineko onarpenaren dokumentua: 2 kopia eta 5CD.

Testu bategina (beharrezkoa bada):2 kopia eta 5CD.

IAErako:

Hasierako dokumentua. 2 kopia eta 5CD.

Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena:2 kopia eta5CD.

Ingurumen-memoria integratzeko dokumentua :2 kopia eta 5CD.

Plan Orokorra egiteko prozesuan idazle-taldeak egin ditzakeen txostenak eta irizpenak bi aletan entregatu beharko dira,paperean eta euskarri informatikoan.

Era berean, indarreko araudiak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dira, kasuan kasuko dokumentuari dagokionez. Definizioari dagokionez, hiri-lurzoruak 1: 500eskalako gutxieneko kartografia izango du;,eta egikaritze-,jarduketa-edo zuzkidura-unitateak1:200eskalakohiri-lurzoruan.

Prezioan honako hauek sartuko dira: aleen argitalpen-gastu guztiak, dokumentuaren ikus-onespena, hala badagokio, eta lanak egiteko behar den beste edozein gastu,testuak euskarara itzultzea barne, eta kartografia-jasotze gehigarriren bat egitea beharrezkotzat jotzen bada, erakunde lizitatzailearen kontura izango da.

Gainera,erredakzio-taldeak Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuari eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari espedientea osatzen duen dokumentazio grafikoaren eta idatziaren bi kopia eman behar dizkie euskarri informatikoan;horietako bat lana egin den programena izango da –Ohiko programek ezagutzeko moduko formatuan –,eta bestea pdf formatuarena.

Dokumenturen bat izapidetzeko paper gehigarriko kopiaren bat eskatzen bada,idazketa-taldeak inolako kosturik gabe aurkeztu beharko du.

8. UDALAK EMANDAKO AGIRIAK

Baldintza-agiri honetan, prozesu osoan zehar Mutiloako hiri-antolamenduko plan orokorreko lanak idazteko kontuan hartu behar diren faseak ezartzen dira.

Erakunde esleipendunak aldez aurreko lanak gauzatzeko behar duen informazioa eskuratu ahal izango du, baita udal-artxiboetan dagoen informazioa ere. Erakunde ofizialetan informazioa bildu ahal izateko,egiaztagiri bat emango zaio,plan orokorraren tresna berria idatzi duela justifikatzeko.

Udalak bere eremuan indarrean dauden hirigintza-espediente guztiei helaraziko die,baita izapidetzen ari direnei ere. Era berean, indarrean dauden arau subsidiarioen dokumentaziora bidaliko da, bai eta onartutako aldaketa puntualetara ere.

Gainera,erredakzio-taldearen esku jarriko ditu honako dokumentu hauek:

Udal-erroldan agertzen diren biztanle edo etxebizitzei buruzko datuak eta etxebizitza hutsen inguruan egindako azterketa.

Indarrean dauden arau subsidiarioen arabera onartutako hirigintza-lizentziak,oin berriko eraikinetarako(egoitzak,industrialak,nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak) eta erabilera-aldaketak jasan behar dituztenetarako, lokal izatetik etxebizitza izatera igaroz.

Partzelazioari buruzko datuak,katastroko informazioaren arabera.

Dagoen kartografia.

9. DOKUMENTUAK ENTREGATZEKO EPEAK ETA FASEAK

Lanen idazketa eta aurkezpena fase eta epeetan egingo dira, eta esleipendunak fase eta epe horiek murriztu ahal izango ditu bere proposamenaren proposamen metodologikoan.

FASEAK		EPEA
1.FASEA	Herritarren partehartze programa	1 Hilabete
2.FASEA	Hirigintzako diagnostikoa	3 hilabete
3.FASEA	HAPOren aurrerapena eta ingurumen-dokumentu estrategikoa	6 hilabete
Jendeaurrean jartzea: Aurrerapena		2 hilabete
4.FASEA	Aurrerapena jendaurrean jartzearen ondoriozko txostena.	1 hilabete
5.FASEA	HAPOa idaztea eta ingurumen-azterketa estrategikoa	6 hilabete
Jendeaurreanjartzea:HAPO		2 hilabete
6.FASEA	HAPOa jendaurrean jartzearen ondoriozko txostena	1 hilabete
7.FASEA	HAPOidaztea,behin-behineanonartzeko.	2 hilabete
Jandaurrean jartzea HAPOa		3 hilabete
8.FASEA	HAPO behinbetikoonartzeko idaztea.	1 Hilabete
9.FASEA	HAPOren testu bateginaren onarpena argitaratzea	2 hilabete